

**Gipuzkoako  
Aldizkari  
Ofiziala**



**Boletín  
Oficial de  
Gipuzkoa**

**27**

2022ko otsailaren 10a, osteguna

**3**

### **TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **ERRETERIAKO UDALA**

#### **Garapen Ekonomikoa**

#### *Iragarkia*

Udalbatzak 2021eko ekainaren 29an egindako bilkuran erabaki zuen hasierako onespena ematea Merkataritzako eta Ostalaritzako Aholku-kontseiluaren Erregelamenduari.

Dokumentu hori jendaurrean egon da 2021eko uztailaren 19tik abuztuaren 31ra (biak barne). Jendaurreko erakustaldi horretan ez da ekarpenik edo erreklamaziorik aurkeztu.

Alkatetza ebazpen bitartez, 2022ko urtarrilaren 18an, erabaki zen behin betiko onartutzat hartzea Merkataritzako eta Ostalaritzako Aholku-kontseiluaren Erregelamendua, hasierako onespenean egin zen baldintza berdinetan.

Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, onartutako Merkataritzako eta Ostalaritzako Aholku-kontseiluaren Erregelamenduaren testu oso-osoa argitaratzen da eta indarrean sartuko da iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

Oro har guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da akordio honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

Hau da onartu den araudiaren testua:

*Merkataritzako eta ostalaritzako aholku-kontseiluaren erregelamendua.*

— Aurkibidea.

Zioen adierazpena.

Atariko titulua.

1. artikulua. Osaera eta izaera.

2. artikulua. Helburua.

3. artikulua. Funtzioak.

I. titulua. Kontseiluaren organoak.

4. artikulua. Osaera.

5. artikulua. Kontseiluaren osoko bilkura: osaera eta izendapena.

6. artikulua. Karguak berritzea.

7. artikulua. Izaera galtzea.

8. artikulua. Kargu hutsak.

9. artikulua. Lehendakariaren funtzioak.

10. artikulua. Idazkariaren funtzioak.

11. artikulua. Lan-batzordeak.

12. artikulua. Kontseiluaren osoko bilkurako kideen eskubide eta betebeharrak.

II. titulua. Antolamendua eta funtzionamendua.

13. artikulua. Ohiko bilerak.

14. artikulua. Ezohiko bilerak.

15. artikulua. Bileretara joatea.

16. artikulua. Saioen erregimena.

17. artikulua. Informatzeko betebeharra.

18. artikulua. Hizkuntzen erabilera Kontseiluan.

19. artikulua. Aurreikusi gabeko egoerak.

## ZIOEN ADIERAZPENA

Ez da beharrezkoa herriko hurbileko merkataritzaren eta ostalaritzaren garrantzi ekonomiko eta soziala azpimarratzea.

Hori dela eta, Udala etengabe ari da harremanetan sektore horietako profesionalak ordezkatzeko dituzten elkarteekin, bai merkataritza biziberritzeko planen ezarpenaren jarraipena egiteko, bai haien lehiakortasuna eta dinamismoa sustatzeko, eta, azken batean, bermatzeko Udalak zuzenean jasotzen dituela haien ekarpenak, eragiten dieten udal-politikako gai guztiei dagokienez.

Egindako ibilbidea oinarri hartuta, esparru hori arautzea komeni da, duen garrantziagatik eta behar duen jarraitutasunagatik. Elkargune bat formalizatu nahi da, Udalaren aholku-kontseilu bat sortuz. Organo hori udal-jardueraren hainbat arlotarako lehendik daudenei gehitzen zaie, eta haren funtzioak, osaera, bileren maiztasuna eta seriotasuna bermatzen laguntzen duten beste gai batzuk zehazten dira, haren eraginkortasunari kalterik egin gabe.

## ATARIKO TITULUA

### *1. artikulua. Osaera eta izaera.*

1. Errenteriako Udalean osatuko da Merkataritzako eta Ostalaritzako Aholku Kontseilua, herritarren parte-hartzea izango duen kide anitzeko organo gisa. Kontsultako izaera izango du eta merkataritzan eta ostalaritzan eragina duten udal-politika eta -jarduketan inguruko informazio, proposamen, eztabaida, aholku, jarraipen eta ebaluazioak burutzea izango dira bere funtzioak.
2. Merkataritza Indartzeko Plan Bereziaren (MIPB) ezarritakoaren ildoan, Kontseilua hiri-ekonomiari buruzko foro zabalagoa bilakatu ahal izango da aurrerago.
3. Aholku-kontseilu honen baitan hartutako proposamenak ez dira Udalarentzat lotesleak izango.
4. Edonola ere, Udalak ez baditu kontuan hartzen Aholku Kontseiluak Udalari aurkeztutako proposamen edo aukerak, organo eskudunak arrazoitu beharko du zergatik ez den komeni horiek burutzea.

### *2. artikulua. Helburua.*

Hauek dira topaketarako eta eztabaidarako foro honen helburuak:

- Aholku-organo gisa, hurbileko merkataritzaren eta ostalaritzaren inguruko udal-politika orientatzea.
- Parte hartzea hurbileko merkataritzako eta ostalaritzako udal-politikaren helburu orokorrak eta berariazkoak ezartzen, lehiakortasuna eta dinamismoa sustatuta.
- Errenteriako Merkataritza Indartzeko Plan Bereziaren (MIPB) ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa burutzea.

### *3. artikulua. Funtzioak.*

Hauek dira Aholku Kontseiluaren funtzioak:

- a) Parte hartzea merkataritzaren eta ostalaritzaren esparruko toki-jardueraren azterketan, gauzatzean eta jarraipenean.
- b) Proposamenak egitea aurrekontu-proiekturako eta kontseilu honen jarduera-sektorearen inguruko ordenantza eta erregelamenduetarako.
- c) Proposatzea merkataritza, ostalaritza, turismoa eta hiri-ekonomia orokorra dinamizatzeko ekimen eta proiektuak.

- d) Iradokizunak, gomendioak edo neurri zuzentzaileak proposatzea behar bezala aurrera egin ez dugun ekintza eta proiektuen kasuan.
- e) Zehaztea Kontseiluaren jardun-ildo nagusiak eta prestatzea barne-arauak (ezingo dira erregelamendu honen aurkakoak izan).
- f) Koordinatzea interesgarritzat jotzen diren Udaleko edo udalez gaindiko kontseilu, organo edo departamentuekin.

## I. TITULUA

### KONTSEILUAREN ORGANOAK

#### *4. artikulua. Osaera.*

Aholku-kontseilu honek organo hauek izango ditu:

- a) Kontseiluaren osoko bilkura.
- b) Lehendakaria.
- c) Idazkaria.

#### *5. artikulua. Kontseiluaren osoko bilkura: osaera eta izendapena.*

Ahal dela, kideak izendatzerakoan, kontuan hartuko da emakume nahiz gizonek gutxienez % 40ko ordezkaritza izateko irizpidea.

Hau izango da osaera:

#### 1) Eskubide osoko kideak (ahotsa eta botoa):

a) Lehendakaria: Errenteriako Udaleko alkatea; lehendakaritza eskuordetu diezaioke egoki deritzon zinegotziari.

#### b) Kideak:

— Garapen Ekonomikoa udal-saileko teknikaria.

— Errenkoalde elkarteko ordezkariek (bi gehienez).

— Ostari elkarteko ordezkariek (bi gehienez).

— Merkatuko elkarteko ordezkariek (Asociación de Comerciantes del Mercado de Errenteria / Errenteriko Merkatuko Merkatarien Elkarte - EMKT) (bi gehienez).

— Oarsoaldea Eskualde Garapenerako Agentziako ordezkariek (bi gehienez).

— Kontseiluaren iritziz kontseiluan parte har dezaten interesgarria izan daitekeen beste elkarte batzuetako ordezkariek edo norbanakoak.

Egitura hau finkatu eta dinamika aktibo bat bermatzen denean, pixkanaka eta izaera iraunkorarekin sartu ahal izango dira kontseilu honen xederako interesgarriak izan daitezkeen beste esparru batzuetako ordezkariak, hala nola, turismoa, kultura, zerbitzuak edo lehen sektorekoak.

2) Ahotsa bai, baina botorik gabeko kideak:

Idazkaria: Eskualdeko Merkataritzako Bulego Teknikoaren arduraduna.

Jorratu beharreko gaien arabera, bileretara gonbidatu ahal izango dira beste pertsona batzuk, udal-departamentuetako teknikariak edo parte hartzen duten erakundeetakoak.

*6. artikulua. Karguak berritzea.*

Izendapenak mugagabeak izango dira.

*7. artikulua. Izaera galtzea.*

Aholku Kontseiluko kideek kontseilukide izaera galduko dute arrazoi hauengatik:

- a) Agintaldia amaitzea.
- b) Berariaz uko egitea.
- c) Heriotza.
- e) Ordezkatzen duen elkarte edo entitatea desegitea.
- f) Behin eta berriz ez betetzea erregelamendu honetan adierazitako funtzioak. Alkateak edo, hala badagokio, zinegotziak erabakiko du zereginak ez betetzeagatik kargutik kentzea, eragindako kidea eta Kontseilua entzun ondoren.
- g) Elkartearen estatutuetan aldaketa nabarmena egitea eta, ondorioz, kidea izendatzea eragin zuen irizpidea aldatzea.
- h) Ordezkatzen duen elkarte uztea.

*8. artikulua. Kargu hutsak.*

Karguren bat hutsik geratzen bada, ahal dela ordezkoa izendatuko da, baldin badago.

*9. artikulua. Lehendakariaren funtzioak.*

- a) Kontseiluaren ordezkari izatea.
- b) Ohiko eta ezohiko bilerak deitzea.
- c) Kontseiluko kideak eta ordezkioak izendatzea eta kargutik kentzea, egoki bada, Kontseiluan parte hartzen duten entitateen proposamena entzunda.
- d) Udaleko eta kanpoko teknikariak gonbidatzea beharrezko edo egoki deritzon.
- e) Gai-zerrenda prestatzea.

- f) Bileren buru, gidari eta moderatzaile izatea, bai eta, berdinketaren bat gertatzen bada, kalitate-botoarekin bozketak erabakitzea ere.
- g) Parte-hartzea bermatzea eta saiatzea proposamenak adostuak izan daitezen.
- h) Udaleko gobernu-organoei helaraztea Kontseiluaren ekimen, txosten eta proposamenak, izapidetu edo gauza ditzan eta ziurta dezan betetzen direla. Sustatzea Kontseilua eta gobernu-taldea eta Udaleko Kudeaketa-organoak koordinatuta jardun daitezen, baita Udaleko kontseilu guztiak ere, informazioa trukatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, baterako neurri eta jarduketak proposatzeko.
- i) Betetzea lehendakari izaerari dagozkion gainerako funtzio guztiak.

#### *10. artikulua. Idazkariaren funtzioak.*

Idazkariari dagozkio hauek:

- a) Bileretara joatea.
- b) Gai-zerrenda prestatzea.
- c) Bileren akta egitea.
- d) Bidaltzea deialdia, gai-zerrendak eta Kontseiluan sortutako dokumentazio guztia. Kontseiluko kideei deialdia bidaliko zaie, soilik posta elektronikoz, kide bakoitzak emandako helbidera.
- e) Izapidetzea Kontseiluaren erabakiak, lehendakariaren jarraibideen arabera.
- f) Betetzea idazkari izaerari dagozkion gainerako funtzio guztiak.

#### *11. artikulua. Lan-batzordeak.*

1. Lan-batzordeak osatu ahal izango dira berriazko (azpi)sektore bat edo gai jakinak jorratzeko, beharrezkoak badira agindutako funtzioak hobeto betetzeko, betiere Kontseiluaren osoko bilkurak beharrezko irizten badio.
2. Osaera, izena eta funtzionamendua Kontseiluaren osoko bilkurak zehaztuko ditu.
3. Lehendakariak, bere kabuz edo batzordeetako kideek eskatuta, Udaleko edo kanpoko teknikarien laguntza eskatu ahal izango du beharrezkoa edo egokia denean.
4. Lan-batzordeek Kontseiluaren osoko bilkurari emango diote jorratutako gaien berri.

#### *12. artikulua. Kontseiluaren osoko bilkurako kideen eskubide eta betebeharrak.*

1. Aholku Kontseiluko kideek eskubide hauek izango dituzte:
  - a) Informazioa eskatu eta informazioa jasotzeko gobernu-organo eskudunek Kontseiluaren eskumeneko gaien inguruan hartzen dituzten eta beren funtzioekin lotura duten erabakien inguruan.

- b) Proposamenak egiteko Kontseiluari. Proposamen horiek aktan jaso eta Kontseiluak aztertuko ditu.
- c) Kontseiluaren baitan osatzen diren lan-talde edo batzordeetako kide izateko.
- d) Saiotako eztabaidetan parte hartzeko.
- e) Kontseiluko idazkariari eskatzeko gai-zerrendako gaien inguruko aurrekariak, informazioa edo dokumentazioa.
- f) Egoki bada, boto-eskubidea erabili eta boto partikularra emateko, arrazoiak adierazita.
- g) Galderak eta eskariak egiteko.
- h) Betetzeko kide izaerari dagozkion gainerako funtzioak.

2. Kontseiluaren osoko bilkurako kideen betebeharrak hauek dira:

- a) Bileretara joatea.
- b) Jakinaraztea Udalak pertsona horiekin komunikatzeko dituen datuetan gertatutako edozein aldaketa.
- c) Erregelamendu honetan ezarritakoa errespetatzea eta betetzea.
- d) Elkarreak badira, Udalarari jakinaraztea estatutuetan egiten dituzten aldaketak, Udalak azter dezan izendatzeko irizpideei eragiten dieten ala ez.
- e) Erregelamendu honek edo legeriak esleitzen dizkien eta aplikatzekoak zaizkien gainerakoak.

3. Kontseiluko kideek ezingo dituzte hartu ordezkaritza-funtzioak, lehendakariak soilik izango du hori, non eta arau batek edo organoak berak kasu bakoitzerako hartutako baliozko erabaki batek berariaz esleitu ez dien.

## II. TITULUA

### ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

#### 13. artikulua. *Ohiko bilerak.*

- 1. Aholku Kontseiluak urtean 4 ohiko bilera egingo ditu, gutxienez, Kontseiluak berak adostutako egunetan. Bilerak egingo dira udaletxean edo telematikoki eta Kontseiluko kideen jardunarekin bateragarria den ordutegian.
- 2. Urtean zehar garatu beharreko helburuak eta ekintzak jasotzen dituen lan-plana onartuko da urtero. Lan-plan horrek helburu horien gauzatzeari buruzko aztertuko duten adierazleak izango ditu.
- 3. Ohiko bilerak deitu beharko dira, gutxienez, bilera-eguna baino astebete lehenago. Deialdiarekin batera bidaliko dira gai-zerrenda eta aurreko bileraren aktaren zirriborroa.

4. Jorratzeko gaien proposamenak Kontseiluko idazkariari helarazi beharko zaizkio deialdia baino bi aste lehenago.

5. Kontseiluaren lehendakariak, bere kabuz edo kideren batek eskatuta, proposatu ahal izango du, urgentziaz eta bilera hasi aurretik, gai-zerrendan sartuta ez dagoen beste edozein gai sartzeko. Kontseiluaren osoko bilkurak berretsiko du puntu berria gai-zerrendan sartzea.

6. Lehendakariak, bere kabuz edo Kontseiluko kideen laurden batek eskatuta, beharrezko eta egoki jotzen badu, eskatuko du Udaleko edo kanpoko teknikari bat bertaratzeko.

#### *14. artikulua. Ezohiko bilerak.*

1. Kontseiluko lehendakariak egoki baderitzo, ezohiko bilerak egin ahal izango dira.

2. Halaber, bilera horiek egin ahal izango dira eskubide osoko kideen erdiak eskatzen badu. Bilera horiek egin beharko dira, gehienez, 15 egun naturaleko epean.

3. Deialdia bidaliko da, gai-zerrendarekin batera, bilera-eguna baino hiru egun baliodun lehenago, gutxienez.

4. Bilduta badaude, presentzialki nahiz telematikoki, idazkaria eta kide anitzeko organoko eskubide osoko kide guztiak, edo horien ordezkioak, baliozko osaera izango dute saioak egin, eztabaidak izan eta erabakiak hartzeko aurreko deialdirik gabe, kide guztien artean hala erabakitzen badute.

#### *15. artikulua. Bileretara joatea.*

Kontseilura joan ahal izango dira, lehendakariak hala eskatzen badie, beharrezkotzat jotzen diren udal-teknikariak, aztertuko diren gaietan ospe handia duten pertsonak edo bileretan eztabaidatuko diren gaietako adituak. Beharrezkotzat jotzen bada, Udaleko organo eta elkarteetako ordezkariak ere joan ahal izango dira. Guztiek ere ahotsa izango dute, baina botorik ez.

Aldez aurretik lehendakariari eskaera egiten dion pertsona oro ere joan ahal izango da. Kasu horretan, kide ez direnek ekitaldian norbanako gisa hartuko dute parte, eta ahotsa izango dute, baina botorik ez.

#### *16. artikulua. Saioen erregimena.*

1. Aholku Kontseilua eratutzat emango da bilerara presentzialki bertaraten direnean, gutxienez, eskubide osoko kideen erdia gehi bat. Edonola ere, nahitaez egon beharko dute lehendakariak, edo haren funtzioak betetzen dituenak, eta idazkariak.



2. Sustatuko dira erabakiak adostasunez hartzen laguntzen duten elkarrizketak eta eztabaidak. Alabaina, ez badago adostasunik, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

Bozketaren emaitza berdinketa bada, berriz bozkatuko da. Berriz ere berdinketa gertatzen bada, adostasun zabalagoa lortzen saiatuko dira eta, lortzen ez bada, azken aukera gisa, lehendakariak kalitateko botoa baliatuko du.

3. Soilik adostu beharko dira gai-zerrendan dauden gaiak, non eta eskubide osoko kideen gehiengo osoak ez duen erabakitzen beste edozein gai urgente sartzea, erregelamendu honen 13.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du, eta zehaztuko ditu bertaratutakoak, eztabaiden alderdi nagusiak eta hartutako erabakien edukia, bai eta Udal Araudi Organikoan adierazitako gainerako alderdiak ere.

5. Aktak hurrengo bileran onartuko dira, baina idazkariak egin ahal izango ditu hartutako berariazko erabakien ziurtagiriak, nahiz eta akta aurrerago onartzeko geratu. Ziurtagiriak akta onartu aurretik ematen badira, berariaz jaso beharko da ziurtagirian.

6. Batzordeak ekitaldi bakoitzaren amaieran proposatuko du hurrengo ekitaldiko bilera-egutegia. Bileren urteko egutegia eskuragarri egongo da Udalaren web-orrian eta posta elektroikoz bidaliko zaie Aholku Kontseiluko kideei.

#### *17. artikulua. Informatzeko betebeharra.*

Udaleko sail/azpisail/zerbitzuek Kontseiluaren informazio-eskaerei erantzun beharko diete 30 egun naturaleko epean, txosten-eskaera jasotzen denetik kontatzen hasita. Eskaera lehendakariak edo idazkariak bideratuko dute, eskaera onartzen denetik 10 egun naturaleko gehieneko epean. Eskatutako informazioa kontseiluko kideei helaraziko zaie eta informazioaren berri emango da hurrengo ohiko bileran, nahiz eta ezohiko bilera bat egin ahal izango den gai hori jorrazteko eta eztabaidatzeko.

#### *18. artikulua. Hizkuntzen erabilera Kontseiluan.*

Aholku Kontseiluak, Errenteriantzat hizkuntza-normalizazioak duen garrantzi estrategikoari jarraiki, bere jardunean eta funtzionamenduan errespetatuko ditu Errenteriako Udalean eta indarreko legerian ezarritako hizkuntza-irizpideak.

#### *19. artikulua. Aurreikusi gabeko egoerak.*

Erregelamendu honetan aurreikusi ez denerako, kontuan izango da Udal Araudi Organikoan eta lege hauetan ezarritakoa: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzekoa; Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, edo horiek ordezkatzan dituzten

arauak.

Errenteria, 2022ko urtarrilaren 25a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketako ordezkaria. (421)